

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

#### Titulartasuna ikertzeko espedientea (Espedientea: 2020/80/S566)

2020ko urriaren 26ko 2101 zenbakidun alkate-udalburuaren dekretu bidez onartu da Laudioko Goienuri kaleko 18 eta 20 zenbakidun eraikinen atzeko aldean dagoen lur-zerrendaren titulartasuna ikertzeko espedientea, 1. poligonoko 120. Katastro-partzelari dagokiona, eta erabaki hau ALHAOn argitaratu da, eraikinen titulartasun zuzena zehazteko. Ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduaren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Halaber, udaletxeko iragarkien taulan ikusgai ipiniko da 15 egun baliodunetz.

Iragarkia udaletxeko iragarkien taulan ikusgai izateko tramitea bukatzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta, hilabeteko epean, ikerketa espedienteak ukitutako pertsonak Udalbatzaren aurrean euren eskubideen alde egoki deritzoten guztia alegatu ahalko dute idatziz, alegazioak oinarritzeko dokumentu guztiak erantsita.

Goiko paragrafoan adierazitako epea igarotakoan, froga-epea zabalduko da, zeinetan elementu hauek onartuko diren:

– Zuzenbidearekin bat emandako dokumentu publiko judizial, notarial edota administratiboak.

– Peritu-azterketa eta -irizpena.

– Lekukoen deklarazioa.

Laudio, 2020ko urriaren 26a

*Alkate-udalburua*

**ANDER AÑIBARRO MAESTRE**